



Kalitateko eta Ingurugiroko Hobekuntza Etengabea: etorkizuneranzko gure bidea



Asfaltados Olarra, S.A. (AOSA) Sozietate Anonimo bezala eratu zen 1959an. AOSAren jarduera nagusia honakook fabrikatu eta hedatzea da: nahaste bituminosoak beroan, nahaste asfaltikoak hotzean, asfalto-ureztapenak, errepideen bidezoru malgu eta zurrinak, asfalto urtzuko zoruak eta kolo-reko aglomeratuak eta azidoen kontrako gainjazkiak eta iragazgaitzak.

Motibazioa

Gu murgilduta gauden merkatua gero eta zorrotz eta lehiakorragoa da. Hori dela eta, gure ustez, kudeaketa-sistema bat ezarri eta kalitatea eta ingurugiroa integratzea funtsezkoa da enpresak bizirik iraun dezan. Izan ere, erakundearen lehiakortasuna eta emaitzak hobetu behar dira.

Hobekuntza etengabeak izan behar du gure lan-filosofia, zertarako-eta gure bezeroen, gure hornitzaileen, enpresa hau osatzen dugun pertsonen eta, orokorrean gure inguru osoaren asetasuna bilatzeko. Guretzat ez da nahikoa onenak izatea: onenak izan nahi dugu.

Garapena

Enpresak kudeaketa-sistema bat ezarri eta kalitatea eta ingurugiroa integratzea du helburu, UNE-EN-ISO 9002: 1994 (Kalitatea) eta UNE-EN-ISO 14001: 1996 (Ingurugiroa) Arauekin bat etorririk.

Lanerako plana honelakoa da:

- Kalitate eta Ingurugiro Saila eta Kalitate eta Ingurugiro Batzordea sortzea eta Kalitate eta Ingurugiro arduraduna eta Kalitate eta Ingurugiro Batzordeko kideak izendatzea.

- UNE-EN-ISO 9002 eta UNE-EN-ISO 14001 Arauekin bat etorririk, Kalitate eta Ingurugiro Sailari atxikitako langileak prestatzea.

- Abiapuntuko egoera aztertzea.

- Kalitate eta Ingurugiroko Eskuliburua eta Prozedurak, jarraibide teknikoak eta jarduteko arauak egitea.

- Kalitate eta Ingurugiro Batzordearen eta lantaldeen bileren bitartez osaturiko kudeaketa-sistema ezartzea.

- Sondikako plantako zerbitzu-arloaren eta ekoizpen-arloaren antolakuntzaren plangintza eta ezarpena.

- Jarraitu ahal zaion adierazkari-sistema bat zehaztea.

- Prestakuntza- eta sentsibilizazio-plan bat eta Auditoretza Plan bat egin eta betearaztea.

- Guztirako kalitate- eta ingurugiro- kostuak neurtzeko sistema bat diseinatzea, 2000aren bukaerarako.

- Ziurtapen-prozesua hastea.

Aurkitutako zailtasun nagusiak honakook dira: mentalitate-aldaketa, motibazio urria, denbora falta, hartutako ohiturak eta epe laburrera ikusi ezin diren onurak.

Emaitzak

Arrakastarako gakoak honakook izan dira: enpresa hau osatzen dugun pertsona guztion motibazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta partaidetza; eta zuzendaritzak azken helburua lortu ahal dela jakitea eta erabat ziur egotea, kalitatea eta ingurugiroa kudeatu eta etengabe hobetzeko sistema bat ezartzea.

Lortutako emaitzen artean honakook nabarmendu behar dira: barneko komunikazioa hobetzea, prozesuak erraztea eta hobetzea, kostuak txikitzea, sortutako hondakinak txikitzea, lan-ingurunea hobetzea, enpresaren eta langilearen arteko harremanen kultur aldaketa eta aurreratzeko gaitasuna, prebentzioan oinarrituriko sistema. Emaitzon adibide zehatz bat aipatzearren, asfalto urtua fabrikatzeko prozesuan, egin beharreko eragiketen kopuruari %66 behera eragitea lortu dugu, sortutako hondakinak %0raino txikitzea eta energia hobeto aprobetxatzea (betuna berotzeko kontsumoari %58 behera eragitea).

Sozietatearen egoitza / Domicilio Social:

Lersundi, 9-5º
 48009 BILBAO (BIZKAIA)
 Teléfono/a: 94 423 72 21
 Fax/a: 94 423 68 59
 E-mail/a: aosa@euskalnet.net

Fabrikazio-planta / Planta de fabricación:

Sangronizko bidea
 Camino de Sangroniz, 26
 48150 SONDIKA (BIZKAIA)
 Teléfono/a: 94 453 15 68
 Fax/a: 94 453 15 68



Mejora Continua en Calidad y Medio Ambiente: nuestra vía hacia el futuro

Asfaltados Olarra, S.A. (AOSA) fue constituida como Sociedad Anónima en 1959. Las actividades principales de AOSA son: Fabricación y extendido de mezclas bituminosas en caliente, de mezclas asfálticas en frío, riegos asfálticos, firmes de carreteras flexibles y rígidos, fabricación y extendido de pavimentos de asfalto fundido, y de aglomerados de color y revestimientos continuos antiácidos e impermeabilizaciones.

Motivación

Inmersos como estamos en un mercado cada vez más exigente y competitivo, entendemos la implantación de un sistema de gestión integrando la calidad y el medio ambiente como factor clave para la supervivencia de la empresa, mejorando la competitividad y los resultados de la organización.


La mejora continua debe ser nuestra filosofía de trabajo en la búsqueda de la satisfacción de nuestros clientes, de nuestros proveedores, de las personas que conformamos esta empresa y de todo nuestro entorno en general. No nos conformamos con ser buenos, pretendemos ser los mejores.

Desarrollo

El objetivo de la Empresa es la implantación de un sistema de gestión integrando la calidad y el medio ambiente de acuerdo con las Normas UNE-EN-ISO 9002: 1994 (Calidad) y UNE-EN-ISO 14001: 1996 (Medio Ambiente).

El plan de trabajo es el siguiente:

- Creación del Departamento de Calidad y Medio Ambiente y del Comité de Calidad y Medio Ambiente. Designación del responsable de Calidad y Medio Ambiente y de los miembros del Comité de Calidad y Medio Ambiente.
- Formación del personal adscrito al Departamento de Calidad y Medio Ambiente de acuerdo a las Normas UNE-EN-ISO 9002 y UNE-EN-ISO 14001.
- Análisis de la situación de partida.
- Realización del Manual y de los Procedimientos de Calidad y Medio Ambiente, instrucciones técnicas y normas de actuación.
- Implantación de sistema de gestión integrado a través de las reuniones del Comité de Calidad y Medio Ambiente y de los grupos de trabajo.
- Planificación e implantación de la organización del área de producción y del área de servicios en la planta de Sondika.
- Definición de un sistema de indicadores cuyo seguimiento sea factible.



- Elaboración de un plan de formación y sensibilización y un Plan de Auditorías y su ejecución.
- Diseño, para finales del 2000, de un sistema de medición de costes totales de calidad y medio ambiente.
- Inicio del proceso de certificación.

Las dificultades principales encontradas son: cambio de mentalidad, motivación escasa, falta de tiempo, costumbres adquiridas, beneficios no visibles a corto plazo.

Resultados

Las claves de éxito han sido las siguientes: Motivación, sensibilización, formación y participación de todas y cada una de las personas que formamos esta empresa; constancia y absoluta convicción por parte de la dirección en la consecución del objetivo final, implantar un sistema de gestión en calidad y medio ambiente encaminado hacia la mejora continua.

Entre los resultados obtenidos, hay que destacar: Mejora de la comunicación interna, simplificación y optimización de procesos, reducción de costes, reducción de residuos generados, mejora del entorno de trabajo, cambio cultural en la relación empresa - trabajador y capacidad de anticipación, sistema basado en la prevención. Por citar un ejemplo concreto de estos resultados, en el proceso de fabricación de asfalto fundido hemos conseguido reducir el número de operaciones a realizar en un 66%, reduciendo los residuos generados hasta el 0% con mejor aprovechamiento energético (reducción del consumo para calentamiento del betún en un 58%).